4.– El Comité de Seguridad y Salud de la Ertzaintza tendrá las competencias que le reconoce el Artículo 49 de la LPRL.

5.– En todo caso, será informado el Comité de Seguridad y Salud de la Ertzaintza de las actuaciones del Tribunal Médico de 2.ª actividad.

6.– El tiempo empleado en el desempeño de su cometido por los miembros del Comité, será considerado, a todos los efectos, dentro de la jornada ordinaria de trabajo, de conformidad al sistema pactado para el desarrollo de tal actividad, debiendo contar para tal utilización del tiempo, en todo caso, informando previamente al/la Jefe/a de Unidad.

Artículo 62.– Delegados/as de prevención.

Los/las Delegados/as de Prevención son los representantes de los/las ertzainas con funciones específicas en materia de prevención de riesgos en el trabajo. Podrán ser delegados/as de Prevención aquellos funcionarios/as que, aunque no ostenten la condición de representantes del personal o de Delegados/as sindicales fueran designados por las organizaciones sindicales. El número de delegados de prevención en el ámbito de la Ertzaintza será de ocho y serán designados por las Organizaciones Sindicales representativas de la Ertzaintza, de conformidad a lo preceptuado en el artículo 103.2 de la Ley de Policía, en proporción a la representación que hubieran obtenido en las elecciones sindicales.

1.– Las competencias de los/las Delegados/as de Prevención son las siguientes:

- a) Colaborar en la mejora de la acción preventiva.
- b) Promover y fomentar la cooperación de los/las ertzainas en la ejecución de la normativa sobre prevención de riesgos laborales.
- c) Ejercer una labor de vigilancia y control sobre el cumplimiento de la normativa de prevención de riesgos laborales.

2.– En el ejercicio de las competencias atribuidas a los/las Delegados/as de Prevención, estos estarán facultados para:

2.1.– Acompañar a los/las técnicos en las evaluaciones de carácter preventivo del medio ambiente de trabajo, así como, en los términos previstos en el artículo 40 de la LPRL, a los/las Inspectores/as de Trabajo y Seguridad Social en las visitas y verificaciones que realicen en los centros de trabajo para comprobar el cum-

pen-lanetan. Hartara, egokitzat jotzen dituzten oharrak egingo dituzte haien aurrean.

2.2.— Beren eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren eta lan baldintzei buruzkoak diren argibideez eta dokumentazioaz jabetzea, LAPLren 22. artikuluko 4. atalean ezarritako mugekin, eta bereziki, Lege horren 18. eta 23. artikuluan xedatu denaz. Informazioak aipaturiko mugak dituenean, isilekotasunaren errespetua bermatzeko moduan emango da.

2.3.— Ertzainen osasunean izandako kalteei buruzko informazioa jasotzea kalteon berri izan eta berehala, eta, lanalditik kanpora bada ere, gertaeren lekuan agertzea kalteon nondik-norakoak ezagutzeko.

2.4.— Herrizaingo Sailak enpresako babes eta prebentzioko jardueraz arduratzen diren pertsonen eta organoen aldetik jasotako informazioa jasotzea Herrizaingo Sailetik, baita ertzainen segurtasunerako eta osasunerako organo eskudunetatik ere, betiere LAPLren 40. artikuluan Lan eta Gizarte Segurantzaren Ikuskaritzarekiko lankidetzaren arloan xedatu denari kalterik egin gabe.

2.5.— Bisitaldiak egitea lantokietan laneko baldintzen egoerara zaintzeko eta kontrolatzeko. Hartara, lantokietako edozein tokitara joan ahal izango dira eta lanaldi osoan ertzainekin harremanetan izateko modua edukiko dute, zerbitzuaren garapen normalari ahalik eta eragozpen gutxien eragiteko.

2.6.— Ertzainen segurtasunaren eta osasunaren babes-maila hobetzeko eta arriskuak prebenitzeko neurriak hartzea, eta horretarako, proposamenak egin dakizkieke Herrizaingo Sailari eta Segurtasun eta Osasun Batzordeari, batzorde horretan eztabaidatuak izateko.

2.7.— Oro har, 3/1995 Legearen 36. artikuluan prebentzioko eskuordeei aitortzen zaizkien gainerako eskumenen garapena. Hartara, kontuan izango dira, hala denean, lege horren 3.2. artikuluan ezarritakoaren arabera baztertu beharreko jardueren inguruko mugak.

3.— Beren eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren prebentzioaren arloko baliabideak eta trebakuntza emango dizkie Herrizaingo Sailak prebentzioko eskuordeei.

Trebakuntzan emandako denbora laneko denboratzat hartuko da ondorio guztietarako.

63. artikulua.— Osasun azterketak.

1.— Herrizaingo Sailak osasun azterketak egingo ditu, Lan Arriskuen Prebentzioaren Legean eta Prebentzio Zerbitzuen Araudian araututakoarekin bat etorriz, eta honako azterketa mediko hauek egingo dira:

plimiento de la normativa sobre prevención de riesgos laborales pudiendo formular ante ellos las observaciones que estimen oportunas.

2.2.— Tener acceso, con las limitaciones previstas en el apartado 4 del artículo 22 de la LPRL, a la información y documentación relativa a las condiciones de trabajo que sean necesarias para el ejercicio de sus funciones y, en particular, a la prevista en los artículos 18 y 23 de esta Ley. Cuando la información esté sujeta a las limitaciones reseñadas, solo podrá ser suministrada de manera que se garantice el respeto de la confidencialidad.

2.3.— Ser informados por el Departamento sobre los daños producidos en la salud de los/las ertzainas una vez que aquel hubiese tenido conocimiento de ellos, pudiendo presentarse, aún fuera de su jornada laboral, en el lugar de los hechos para conocer las circunstancias de los mismos.

2.4.— Recibir, del Departamento, las informaciones obtenidas por éste procedentes de las personas u órganos encargados de las actividades de protección y prevención en la empresa, así como de los organismos competentes para la seguridad y la salud de los/las ertzainas, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 40 de la LPRL en materia de colaboración con la Inspección de Trabajo y Seguridad Social.

2.5.— Realizar visitas a los lugares de trabajo para ejercer una labor de vigilancia y control del estado de las condiciones de trabajo, pudiendo, a tal fin, acceder a cualquier zona de los mismos y comunicarse durante la jornada con los/las ertzainas, de manera que no se altere el normal desarrollo del servicio.

2.6.— Recabar, del Departamento, la adopción de medidas de carácter preventivo y para la mejora de los niveles de protección de la seguridad y la salud de los/las ertzainas, pudiendo a tal fin efectuar propuesta al Departamento, así como al Comité de Seguridad y Salud para su discusión en el mismo.

2.7.— En general, al desarrollo del resto de las competencias reconocidas a los/las Delegados/as de Prevención, en el Art. 36 de la Ley 3/1995, teniendo en cuenta, en su caso, las limitaciones derivadas en relación con las actividades que deben quedar excluidas según prevé el artículo 3.2. de la Ley citada.

3.— El Departamento deberá proporcionar a los/las Delegados/as de Prevención los medios y la formación en materia preventiva que resulten necesarios para el ejercicio de sus funciones.

El tiempo dedicado a la formación será considerado como tiempo de trabajo a todos los efectos.

Artículo 63.— Exámenes de salud.

1.— El Departamento de Interior procederá a la realización de los exámenes de salud, de conformidad con lo preceptuado en la Ley de Prevención de Riesgos Laborales y en el Reglamento de los Servicios de Prevención, realizándose los siguientes tipos de reconocimientos médicos:

a) Aldizkako osasun azterketak: Herrizaingo Sailak osasuna zainduko dela bermatuko die Ertzaintzako funtzionarioei lanari datzekion arriskuen arabera; azterketa hori borondatezkoa izango da.

Hori guztia funtzionarioei egin beharreko bestelako osasun azterketei kalterik egin gabe, hain zuzen ere prebentzioko eskuordeen aurretiazko txostena izanda, Prebentzio Zerbitzuaren ustez azterketa egitea ezinbestekoa zaien funtzionarioei, zertarako-eta laneko baldintzek funtzionarioen osasunean dituzten ondorioak ebaluatzeko edo funtzionarioen osasun egoera lanerako, gainerako funtzionarioentzat edo zerbitzuarekin lotuta dauden pertsonentzat arriskutsua izan daitekeen ala ez egiaztatzeko. Edo legezko xedapenetan hala xedatzen denean, arrisku berezia duten jardueren eta arrisku espezifikoaren babesari dagokionez.

b) Lanera itzultzeko osasun azterketak: Nahitaez egin beharko da osasun azterketa jarduneko zerbitzuan ez beste administrazio egoera batean egon denean 6 hilabete baino denbora luzeagoan eta egoera horretara itzultzea eskatzen denean.

c) Lanpostuetako espezializazio eta hornidurako kurtsuetan sartzeko deialdietarako osasun azterketak, hala ezarrita dagoenean.

Salbuespen mediko espezifikotako tauletako edukiekin bat etorriz egingo dira osasun azterketa horiek.

Halaber, nahitaezko osasun azterketak egingo zaizkio toki estalietako lanpostuak betetzen dituen pertsonalari, Prebentzio Zerbitzuak erabakiko duen aldizka-kotasunarekin. Horretarako, aurreko lerroaldean aipatzen diren deialdietan hartuko da parte.

2.– Herrizaingo Sailak konpentsatuko ditu funtzionarioen joan-etorriek eragindako gastuak nahitaezko osasun azterketara doazenean eta halaxe egiaztatzen bada Prebentzio Zerbitzuak.

3.– Nolanahi ere, pertsonak intimitaterako eta duintasunerako duen eskubidea errespetatuko du beti osasun jarduera horren ondorioz bildutako informazioak, baita osasun egoeraren inguruko informazio guztiaren isilekotasuna bermatzeko ere.

4.– Funtzionario guztiak izango dute osasun azterketen emaitzen berri, eta, oro har, azterketa egin baino lehen, haien edukien jakitunean izango dira, bai analitikari dagokionez, bai bestelako probei dagokienez.

5.– Herrizaingo Sailaren Prebentzio Zerbitzuak osasun azterketen edukien berri emango dio Laneko Seguritasun eta Osasun Batzordeari azterketak egin baino lehen. Halaber, azterketa horien gaineko datu orokorrak emango dira, estatistikako azterlan egokiak egitearen ondorioetarako.

a) Exámenes de salud periódicos: el Departamento de Interior garantizará a los/las funcionarios/as de la Ertzaintza la vigilancia periódica de su estado de salud en función de los riesgos inherentes al trabajo, que tendrán carácter voluntario.

Ello sin perjuicio de la realización de otros exámenes de salud de carácter obligatorio, a aquellos/as funcionarios/as en quienes concurren a juicio del Servicio de Prevención, previo informe de los/las Delegados/as de Prevención, los supuestos en que la realización de los reconocimientos sea imprescindible para evaluar los efectos de las condiciones de trabajo sobre la salud de los funcionarios/as o para verificar si el estado de salud del funcionario/a puede constituir un peligro para él mismo, para los demás funcionarios/as o para otras personas relacionadas con el servicio o cuando así esté establecido en una disposición legal, en relación con la protección de riesgos específicos y actividades de especial peligrosidad.

b) Exámenes de salud de reingreso: se realizará necesariamente un examen de salud previo en los casos en los que se haya permanecido en situación administrativa distinta a la de servicio activo durante más de 6 meses y se solicite regresar a esta situación.

c) Exámenes de salud, cuando así estén previstos, en las convocatorias de ingreso, de acceso a cursos de especialización y de provisión de puestos de trabajo.

Dichos exámenes de salud se realizarán de conformidad con el contenido de los cuadros de exclusiones médicas específicas.

Asimismo, se realizarán exámenes de salud de carácter obligatorio y con la periodicidad que se determine por el Servicio de Prevención, al personal que desempeñe puestos de trabajo cubiertos, mediante la participación en las convocatorias mencionadas en el párrafo anterior.

2.– Los gastos generados a los/las funcionarios/as por desplazamiento cuando deban acudir a reconocimientos médicos de carácter obligatorio y así sean certificados por el Servicio de Prevención, serán compensados por el Departamento de Interior.

3.– En todo caso, la información recogida como consecuencia de esta actividad sanitaria respetará siempre el derecho a la intimidad y dignidad de la persona y la confidencialidad de toda la información relacionada con su estado de salud.

4.– Todo/a funcionario/a conocerá los resultados de su examen de salud y, con carácter previo a someterse al mismo, sus contenidos, tanto en analítica como en otras pruebas a realizar.

5.– El Servicio de Prevención del Departamento pondrá en conocimiento del Comité de Seguridad y Salud Laboral todos los contenidos de los diferentes exámenes de salud, con carácter previo a su implantación. Asimismo, se facilitarán al Comité datos generales de los mismos, a efectos de realización de los pertinentes estudios estadísticos.

6.– Osasun azterketak, ahal dela, laneko ordutegian eta txandan egingo dira.

7.– Herrizaingo Sailaren Prebentzio Zerbitzuak ertzain guztien osasun egoera hobetzeko beharrezkoak diren neurriak bideratuko ditu osasun erakunde publikoak betetzen ez dituen beharrezkoen dagokienez edo, beharrezko horiek bete arren, zerbitzu publikokoa baino hobetago eskaintzeari dagokionez, diagnosi zerbitzuetan zein kirurgiako, laguntzako, errehabilitazioko zerbitzuetan edo zerbitzu terapeutikoetan edota adituen zerbitzuetan.

V. TITULUA

EUSKALDUNTZEA ETA ALFABETATZEA

64. artikulua.– Euskalduntzea eta alfabetatzea.

Ertzaintzako euskararen normalizazio prozesuari dagokionez, otsailaren 24ko 30/1998 Dekretuan ezarritakoa aplikatu behar da (EHAA, 1998-03-06koa), jarduteko plana arautzeko xedea duena: ertzain guztiak euskarazko hizkuntza-gaitasunaren jabe egitea, betiere beren eginkizunen arabera mailaren arabera eta EAEko herritar guztiak dituzten hizkuntza eskubide guztiak normaltasunez errespetatzeko.

Herrizaingo Sailak aldian-aldian emango du euskalduntze prozesuen eta planen bilakaerari buruzko informazioa Euskara Batzordean, baita aipaturiko dekretuan ezarritako gainerako kontu guztien gaineko informazioa ere; Euskara Batzordea EHPLren 103. artikuluan ezarritako negoziazio mahaiaren ondorioz sortu zen.

Aipaturiko dekretu horren seigarren kapituluan ezarritako hizkuntza-gaitasuneko kurtsoetan parte hartzeko baldintzak 1999ko martxoaren 9ko Akordioan xedaturikoak izango dira; Akordio hori ERNE eta ELA sindikatuek eta Herrizaingo Sailak sinatu zuten.

Herrizaingo Sailak hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko bi deialdi egingo ditu Akordio honek indarrean jarraitzen duen urte bakoitzean.

65. artikulua.– Lan-ordutegitik kanpoko euskarazko kurtsoak.

1.– HABEk homologaturiko euskaltegi joateko matrikularen zenbatekoa ordainduko die Herrizaingo Sailak urtero hala egiteko eskatzen duten ertzainei, betiere lan-ordutegitik kanpoko eskolak emateko eta aurretik matrikularen gordekina Giza Baliabideetako Zuzendaritzari ematen bazaio.

2.– Herrizaingo Sailak EGAREN, Hizkuntza Eskola Ofizialaren eta Labayru Institutuaren azterketetako matrikulak ordaintzeak dakartzan gastuak konpentsatuko ditu..

3.– Halaber, teleikaskuntzako sistemen bidez euskarazko kurtsoak gainditu izana egiaztatzen duten ertzainek diru-laguntza jaso dezakete Euskara Batzordeak

6.– Los exámenes de salud se realizarán, en la medida de lo posible, en horario y turno de trabajo.

7.– Desde el Servicio de Prevención del Departamento de Interior se articularán las medidas necesarias para mejorar las condiciones de salud de los/las ertzainas en aquellos aspectos en que la atención pública sanitaria no cubra determinadas necesidades o aún cubriéndola, suponga una mejor atención respecto de aquélla, tanto en servicios diagnósticos, como en servicios quirúrgicos, asistenciales, rehabilitadores, terapéuticos y/o periciales.

TÍTULO V

EUSKALDUNIZACIÓN Y ALFABETIZACIÓN

Artículo 64.– Euskaldunización y alfabetización.

En lo referido al proceso de normalización del euskera en la Ertzaintza, será de aplicación el Decreto 30/1998, de 24 de febrero, (BOPV de 06-03-1998), que tiene como finalidad regular el plan de actuación dirigido a que todos los/las ertzainas adquieran la capacitación lingüística en euskera, adecuada al desarrollo de sus funciones con pleno respeto al normal desenvolvimiento de los derechos lingüísticos de todos los/las ciudadanos/as del País Vasco.

El Departamento de Interior informará periódicamente de la marcha del proceso y de los planes de euskaldunización, así como el resto de cuestiones previstas en el mencionado Decreto, en el seno de la Comisión de Euskera, que emana de la Mesa de negociación prevista en el artículo 103 de la LPPV.

Las condiciones de participación en los cursos de capacitación lingüística previstos en el capítulo sexto del mencionado Decreto serán las previstas en el Acuerdo de fecha 9 de marzo de 1999, suscrito por las Representaciones Sindicales de ERNE y ELA y el Departamento de Interior.

El Departamento de Interior realizará cada año de vigencia del presente Acuerdo dos convocatorias de acreditación del perfil lingüístico.

Artículo 65.– Cursos de euskera fuera de la jornada de trabajo.

1.– El Departamento de Interior abonará anualmente a aquellos/as ertzainas, que así lo soliciten, el importe de la matrícula por la asistencia a euskaltegi homologado por HABE fuera del horario laboral, previa presentación del resguardo correspondiente en la Dirección de Recursos Humanos.

2.– El Departamento compensará el gasto que suponga el pago de las matrículas de exámenes de EGA, Escuela Oficial de Idiomas e Instituto Labayru.

3.– Asimismo, los/las ertzainas que acrediten haber superado cursos de euskera a través de sistemas de teleaprendizaje, podrán acceder a su subvención, cuando

ezarritako eskakizunak betetzen dituzten unean. Gehienez 450 euroko diru-laguntza emango da urtean.

4.– Aurreko ataletan aipatzen diren gastuak behin konpentsatuko dira euskalduntze kurtsoko eta mailako.

66. artikulua.– Euskarazko kurtsuak lanaldiaren barruan.

Euskarazko kurtsuotara joatea, lan-ordutegiaren barruan, euskarazko eskoletan lan-ordutegitik kanpo parte hartu duen ikaslearen motibazioaren eta ahaleginen errekonozimendutzat hartu behar da, eta lanpostuak esleituta duen hizkuntza-eskakizuna gainditzeko xedea ere izan dezake. Nolanahi ere, honelaxe arautuko da:

a) Liberazioen egitarauan parte hartu ahal izateko, gutxienez HABEko 6. maila egiaztatu eta HABEko hiru maila gainditu behar dira aurretik azken bi urtean lan-ordutegik kanpo. Halakoetan, liberazioak gehienez hiru hilekoak izango dira.

b) Alfabetatze-mailako eta HABEko 8. Mailatik gorako mailako ikasleek azken urtean euskarazko maila bat egin behar dute gutxienez lan-ordutegitik kanpo, liberatuak izateko; liberazioak ez dira hilabeteak baino luzeagoak izango.

c) Liberazioek goi-agintari egokiaren ikus-onesia beharko dute; goi-agintariak gehienez hiru hilabetez atzeratu dezake kurtsuan sartzea zerbitzuko beharriak direla-eta, baina betiere atzerapena izateko zioak emango dira. Liberazioa zein egunetatik aurrera izango den beren beregi adierazi beharko da, betiere ezarritako epearen barruan.

d) Era horretako liberazioez jabetzeko prozedura Giza Baliabideetako Zuzendaritzak ezarritakoa izango da.

e) Maila-eskakizuna betetzearen ondorioetarako, Arkauteko Polizia Ikastegiak egindako sarrera-frogetan egiaztatuko da maila.

I. ERANSKINA

A) Uniforme Jantzia.

1.– Nahikoak direla uste da honekin batera doan eranskinetako jantziak eta kopuruak, poliziako jardueraren garapen normalerako zuzkidura osatzen dutenak erantzainari ezarritako destinoaren arabera. Jantziak aldatu egingo dira honako kasu hauetan, inolako mugarik gabe jantzi kopuruari dagokionez:

acrediten los requisitos que se establezcan por la Comisión de Euskera. El importe de la subvención será de un máximo anual de 450 euros.

4.– Los gastos a que se refieren los apartados anteriores serán compensados una vez por curso y por nivel de euskaldunización.

Artículo 66.– Cursos de euskera dentro de la jornada de trabajo.

La asistencia a cursos de euskera dentro del horario laboral se entenderá como un reconocimiento a la motivación y al esfuerzo realizado por el/la alumno/a que ha acudido a clases de euskera fuera del horario laboral y también, podrá tener como finalidad la acreditación del perfil lingüístico que tenga asignado el puesto de trabajo y, en todo caso, se regulará en los siguientes términos:

a) Para poder participar en el programa de liberaciones al menos, hay que acreditar el 6.º nivel de HABE y haber superado previamente tres niveles de HABE, dentro de los dos últimos años, fuera del horario laboral. En estos casos, las liberaciones no serán nunca superiores al trimestre.

b) Los/las alumnos/as de los niveles alfabetatzen y superior a 8.º de HABE, habrán de cursar, al menos, un nivel de euskera en el último año, fuera del horario laboral para poder acceder a las liberaciones que no serán superiores a 1 mes.

c) Las liberaciones contarán con el V.ºB.º del superior correspondiente, quién podrá aplazar la incorporación hasta un máximo de tres meses cuando las necesidades del servicio así lo exigieren, motivando las causas de tal aplazamiento. Habrá de señalarse expresamente la fecha a partir de la cual pueda llevarse a cabo esta liberación, dentro del plazo establecido.

d) El procedimiento de acceso a este tipo de liberaciones será el establecido por la Dirección de Recursos Humanos.

e) A efectos del cumplimiento del requisito de nivel, éste será el acreditado en las pruebas de acceso realizadas por la Academia de Policía de Arkaute.

ANEXO I AL ACUERDO DE REGULACIÓN DE LAS CONDICIONES DE TRABAJO DEL PERSONAL DE LA POLICÍA DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI PARA LOS AÑOS 2005, 2006 Y 2007

A) Vestuario Uniforme.

1.– Se consideran suficientes las prendas y cantidades reflejadas en el anexo adjunto, que componen la dotación para el normal desarrollo de la actividad policial, en función del destino a que esté adscrito el/laertzaina. Se procederá a la reposición de prendas sin ningún tipo de límite, en cuanto al número de artículos, en los siguientes supuestos:

1) Polizia zerbitzuaren jardueren ondorioz jantzia ustekabean hautsiz gero, askatu ezean.

2) Agente batzuen eragina jantziak zikinduz gero, baldin eta haien orbanak etxeko tretxuaren ikuzketarako ohiko bideen bitartez ikuzi ezin badira. Agente horiek honakook dira: koipea, odola, azidoak eta beste batzuk.

3) Ertzaintzaren egungo garaierako edo neurriekiko janzkiaren doikuntzarik ezin gertatzen bada.

4) Jantzia ohiko erabileraren ondorioz agerian gatatuz gero.

5) Jantzki-eredua aldatu edo banakako zuzkidurara beste jantzki bat sartuz gero.

6) Jantzkiak fabrikazioko akatsik edo ajerik badu.

7) Banakako zuzkidura osatzen duen gaietakoren bat galduz gero, polizia agintariaren txostenaren ostean edo hark ontzat eman ostean.

8) Ertzain eskatzailea haurdun badago.

9) Galoien eta sorbaldakoen kasuan, graduazio-aldatearik edo gaituen, funtzioetako edo praktikatako izendapenik gertatuz gero.

10) Zerbitzura berriro sartuz gero.

11) Batzorde Parekideak baloratu eta zehaztu beharreko beste zergati batzuegatik.

1.etik 6.erainoko puntuetan (biak barne) aipatutako balizkoetan, jantzia eman beharko da ordeztu baino lehen.

2.- Prozedura.

Herrizaingo Sailak, ofizioz, banako zuzkidura osatzen duten jantziak emango dizkio Ertzaintzako kide berri bakoitzari haren destinoaren arabera.

Era berean, zuzkidurara jantzki berririk sartu eta egungo ezaugarrietakoren bat aldaraziz gero, ematea ofiziozkoa izango da.

Gainerako balizkoetan, ertzain eskaeragileak eskabide bat beteko du eta ELAT Zentroko buruari emango dio. Beronek, hura baloratu eta haren garaiera eta neurriak egiaztatu ostean, Biltegi Nagusiari eskaera bat egingo dio, zertarako-eta hark, barneko postaren bitartez, eskatutako gaia eskaera egina duen Zentroari aldatzeko.

ELAT Zentroko buruak interesatuari jantzia emango dio, eskatzaileak bera egiaztatu eta hura hartzeko akta sinatu ostean, eta itzulitako Jantzkiak eman ostean, horrela ezarritako balizkoetan.

Ertzainen eskuetan erabiliak ez diren eta zahartasunarengatik, neurrien doikuntzarik ezarengatik edo biltzeko arazoengatik eman gura dituzten jantzki posibleei irtenbidea emateko helburuz, haiek biltzeko eta birziklatzeko prozedura bat gaituko da.

1) Por rotura accidental de la prenda, producida como consecuencia de las actividades propias del servicio policial, y siempre que no se trate de descosidos.

2) Por suciedad del vestuario, producido por alguno de los/las siguientes agentes: grasas, sangre, ácidos u otros, cuyas manchas no sean lavables por los medios habituales de limpieza del ajuar doméstico.

3) Por desajuste de la prenda con la talla actual del/de la ertzaina.

4) Por manifiesto desgaste, debido al uso habitual del vestuario.

5) Por cambio de modelo de prenda ó incorporación de una nueva a la dotación individual.

6) Por vicios o defectos de fabricación.

7) Por pérdida o extravío de alguno de los artículos que componen la dotación individual, previo informe y visto bueno del mando policial.

8) Por embarazo de la ertzaina solicitante.

9) En el caso de galones y hombreras, por cambio de graduación ó nombramiento en prácticas, funciones u habilitados.

10) Por reincorporaciones al servicio.

11) Por otras causas, a valorar y determinar por la Comisión Paritaria.

En los supuestos contemplados en los puntos 1º al 6º, ambos inclusive, será preciso la entrega de la prenda previa a la sustitución de la misma.

2.- Procedimiento.

El Departamento de Interior entregará, de oficio, a cada nuevo miembro de la Ertzaintza las prendas que componen la dotación individual, en función de su destino.

Igualmente, en el caso de nuevas prendas que se incorporen a la dotación, así como en la modificación de las características de alguna de las actuales, la entrega será, también, de oficio.

En el resto de supuestos, el/la ertzaina peticionario rellenará una solicitud que entregará al/la Jefe de Centro SAAS, quien, previa valoración de la misma, así como comprobación de las tallas, cursará un pedido al Almacén Central, para que, a través del correo interno, haga llegar el artículo solicitado al Centro origen de la petición.

El/la Jefe de Centro SAAS, entregará la prenda al/la interesado/a, previa comprobación de la misma por el/la solicitante y firma del acta de recepción, así como entrega de las prendas devueltas, en los supuestos así establecidos.

Con el objeto de dar una salida a las posibles prendas no usadas en manos de los/las ertzainas, y que, bien por antigüedad, por desajuste de tallas ó por problemas de almacenaje, deseen entregar, se habilitará un procedimiento para su recogida y reciclaje.

B) Uniformea ez den jantziengatik kalte-ordaina.

1.– 2006az gero, Unitateko Burutzak ezarrita, bere lana uniformea ez den jantziarekin betetzeko agindua ematen zaion ertzainak, baldin eta urte natural bereko berrogeita bost eta laurogeita hamar eguneko epearen bitartean egin bada lana, 120 euroko konpentsazioa jasotzeko eskubidea izango du urte bakoitzaren amaieran. Baldin eta egoera hori urte bereko laurogeita hamar egunekoa baino aldi luzeagoan gertatzen bada, 360 euroko konpentsazioa izango da. Kalte-ordain hori ez zaio aplikatuko Babesteko eta Eskuartzeko Unitateko pertsonalari.

Zenbateko egokia hurrengo urteko lehen bi hileetan ordainduko da, eta horretarako, idatzia egin behar du Unitateko Burutzak. Bertan zehaztuko dira zerbitzua emateko aginduaren zioak eta horren indarraldia urte natural bakoitzean.

2.– Babesteko eta Eskuartzeko Unitatean lan egiten duen Ertzaintzako pertsonalak gehienez 860 euro jaso ahal izango ditu 2006az gero urte bakoitzeko, uniformea ez den jantzia erosteko gastuengatik, baina aurretik justifikazioko fakturak aurkeztu behar dira nahitaez.

Kompentsazioaren zenbatekoa ez da, inola ere, aurkezturiko fakturen bidez egiazaturiko gastua baino altuagoa.

Kompentsazioaren zenbatekoa unitatean benetan eman den denboraren proportzionala izango da.

Kompentsazioa ordaintzeko, Unitateko Burutzaren aldeko txostena eskatuko da, hartutako jantzi-motak lana egiteko moduari egokitzeari buruzkoa; izan ere, horixe da konpentsazio honen xedea.

3.– Akordio honen 54. artikuluan aurreikusten den igoera orokorrerako ezarritakoaren berdina izango da artikuluko honetan azaldutako zenbatekoen igoera.

B) Indemnización por vestuario no uniformado.

1.– A partir del año 2006, el/la ertzaina a quien sea ordenado por la Jefatura de Unidad el desempeño de su trabajo con vestuario no uniformado y se produzca éste, de forma efectiva, entre cuarenta y cinco y noventa días en el mismo año natural, tendrá derecho a que le sea abonado al final de cada año una compensación de 120 euros. Cuando esta situación se prolongue más de noventa días en el mismo año, el importe de la compensación será de 360 euros. Esta indemnización no será de aplicación al personal de la Unidad de Protección e Intervención.

El importe correspondiente será ingresado en los dos primeros meses del año siguiente, habiendo de ser emitido para ello, escrito por la Jefatura de Unidad correspondiente, en que se motive la orden de servicio y el tiempo de vigencia de la misma cada año natural.

2.– El personal de la Ertzaintza que preste servicios en la Unidad de Protección e Intervención podrá percibir cada año a partir del año 2006, una cantidad máxima de 860 euros, por concepto de compensación de gastos por adquisición de vestuario no uniformado, previa presentación de las correspondientes facturas justificativas.

El importe de la compensación en ningún caso podrá ser superior al del gasto acreditado mediante las facturas aportadas.

El importe de la compensación será proporcional al tiempo de permanencia efectiva en la Unidad.

Para el abono de la compensación se requerirá el informe favorable de la Jefatura de Unidad, acerca de la adecuación del tipo de prendas adquiridas a la forma en que ha de ser realizado el trabajo, que constituye el fundamento de la existencia de esta compensación.

3.– Los importes expresados en el presente artículo experimentarán anualmente un incremento igual al establecido para la subida general prevista en el artículo 54 del presente Acuerdo.

ERTZAINTZAREN OINARRIZKO JANTZIAK

KONTZEPTUA	KOPURUA
Anorak Gorria, Goretex, G. eta E.	Unt. 1
Pistola eramatekoa, G. eta E.	" 1
Txapel Gorria /Ezcutua, Gizona	" 2
Txapel Gorria /Ezcutua, Emakumea	" 2
Bota-erdia, Herrit. Seg.	Pare 1
Katiuskak	Pare 1
Su-Kontrako buzoa	2 Unt.
Galtzerdi beltza	3 Pare
Su-Kontrako Kaltzontziloa, G. eta E.	Unt. 1
Alkandora urdina M/C, G. eta E.	3 Unt.
Alkandora urdina, M/L, G. eta E.	3 Unt.
Su-Kontrako kamiseta, G. eta E. H.S.	Unt. 1
Istilu-kontrako kaskoa	"
Lonazko poltsa/kaskoa	"
Uretako jaka gorria, G. eta E.	"
Galako jaka gorria, G. eta E.	"
Larru zuriko gerrikoa	"
Gerriko beltza	"
Sukontrako gerriko beltza	"
Ikusg. handiko jantzi-multzoa	"
Ikusg. handiko poltsa/ekipoa	"
Defentsako larruzko uhala, G. eta E.	2 Unt.
Defentsa zuria	Unt. 1
Defentsa beltza	"
Ehunezko ezcutua, G. eta E.	2 Unt.
Ehunezko ezcutu normala, G. eta E.	3 Unt.
Praka-gona, emakumea (Negukoa)	Unt. 1
Praka-gona, emakumea (Udakoa)	"
Aerosol-zorro zuria, G. eta E.	"
Aerosol-estalki beltza, G. eta E.	"
Kargadore-zorro zuria, G. eta E.	"
Kargadore-zorro beltza, G. eta E..	"
Girgilu-zorro zuria, G. eta E.	"
Girgilu-zorro beltza, G. eta E.	"
Pistola-zorro zuria, G. eta E.	"
Pistola-zorro beltza, G. eta E.	"
Pistola atxikitze goma	"
Girgiluak	"
Girgiletako giltzak	2 Unt.
Istilu-kontrako eskularruak	Pare 1
Eskularru beltzak, G. eta E.	"
Gerriko belarria/larakoa.	Unt. 1
Plastikozko arima-sorbaldakoa, G./ E.	2 Sorta
Plastikozko sorbaldakoa, G. eta E.	" 1
Jertse gorria, G. eta E. (Negukoa)	Unt. 1
Jertse gorria, G. eta E. (Udakoa)	"
Uretako praka urdinak, G./E. (Negukoa)	"
Uretako praka urdinak, G./E. (Udakoa)	"
Praka urdinak, G. eta E. (Negukoa)	"
Praka urdinak, G. eta E. (Udakoa)	"
Pantiak	3 Pare

KONTZEPTUA	KOPURUA
Bularreko plaka	Unt. 1
Txilibituak	"
Defentsako tahali zuria	"
Defentsako tahali beltza	"
Torlojuak/gerrikoa, G. eta E.	6 Unt.
Sukontrako aurpegiko estalki beltza	"
Larruzko zoladun zapata	Pare 1
Gomazko zoladun zapata	Pare 1

ERREPIDEKO MOTORISTAREN JANTZIAK

KONTZEPTUA	KOPURUA
Gordailu-poltsa	Unt. 1
Errepideko bota altuak	Pare 1
Buzo Iragazgaitza	Unt. 1
Barruko kamiseta termoisol.	"
Kaskoa	"
Larruzko jaka	"
Ikusg. Handiko jantzi-multzoa	"
Ikusg. Handiko poltsa/ekipoa	"
Bota-estaltzekoa	Pare 1
Motoristaren faja	Unt. 1
Neguko eskularruak	Pare 1
Udako eskularruak	"
Perkins lepoko jertse gorria	Unt. 1
Larruzko prakak	"
Barruko jantzi termoisolatzailea	Sorta 1
Aurpegiko estalki beltza	Unt. 1

ERTZAIN HAURDUNAREN JANTZIAK

KONTZEPTUA	KOPURUA
Haurdunaldiko soinekoa	Unt. 1
Haurdunaldiko alkandora	2 Unt.
Puntuko jertsea/jaka	Unt. 1

MOTORDUN LANDA-PATRUILAREN JANTZIAK

KONTZEPTUA	KOPURUA
Motokroseko botak	Pare 1
Kaskoa	Unt. 1
Jaka gorria	"
Praka urdinak	"
Motokroseko faja	"
Betaurrekoak	"
Esku-larruak	Pare 1
Lanerako prakak	Unt. 1
Motxila	"
Depositua estaltzeko poltsa	"

EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERTZAINTZAKO LANGILEEN 2005, 2006 ETA 2007RAKO
LAN-BALDINTZAK ARAUPETZEKO AKORDIOAREN II. ERANSKINA

TXANDEN ORDUTEGI-ARAUBIDEA (20. ARTIKULUA)

ZIKLOAREN EGITURAREN TAULA

L: Atsedeen-eguna
X: Lan egiteko eguna

I.- BOST ASTEKO ZIKLOAK

EGITURA								OHIKOA							BEREZIA								
ZIKLOAREN HASIERA								A	A	a	O	O		L	I	A	A	a	O	O		L	I
1. ASTEA	A	A	a	O	O (5)	L	I (2)	x	X	x	x	x		L	L	X	x	x	x	x		x	X
2. ASTEA	A	A	a	O	O (5)	L	I (2)	x	X	x	x	x		X	x	L	L	L	L	L		x	X
3. ASTEA	A	A	a	O	O (5)	L	I (2)	L	L	L	L	L		L	L	L	L	L	L	L		L	L
4. ASTEA	A	A	a	O	O (5)	L	I (2)	x	X	x	x	x		X	x	X	x	x	x	x		x	X
5. ASTEA	A	A	a	O	O (5)	L	I (2)	L	L	L	L	L		L	L	L	L	L	L	L		L	L

ZIKLOAREN AMAIERA

I.- HIRU ASTEKO ZIKLOAK

ZIKLOAREN HASIERA								A	A	a	O	O		L	I
1. ASTEA	A	A	a	O	O (5)	L	I (2)	x	X	x	x	x		L	L
2. ASTEA	A	A	a	O	O (5)	L	I (2)	x	X	x	x	x		x	X
3. ASTEA	A	A	a	O	O (5)	L	I (2)	L	L	L	L	L		L	L

ZIKLOAREN AMAIERA

TXANDEN ORDUTEGI-ARAU BIDEA (HERRITARREN SEGURTASUNA)

KADENTZIA-TAULA

ZIKLOAREN HASIERA								B1		B2		B3		B4		B5		B6		B7		BM1		BM2		BM3	
1. ASTEA	A	A	a	O	O (5)	L	I (2)	G	L'	GO	L'	A	L'	GO	L'	A	L'	GO	L'	A	L'	GO*	I*	A*	G'	A*	I*
2. ASTEA	A	A	a	O	O (5)	L	I (2)	A	G'	A	G'	A	G'	A	I*	A	I*	GO	I	G	G'	L	I*	L	I*	L	I*
3. ASTEA	A	A	a	O	O (5)	L	I (2)	L	L'	L	L'	L	L'	L	L'	L	L'	L	L'	L	L'	L	L	L	L'	L	L
4. ASTEA	A	A	a	O	O (5)	L	I (2)	GO	I	GO	I	GO	I	GO	I	GO	I	GO	I	IO	I	I*	I*	GO*	I*	GO*	I*
5. ASTEA	A	A	a	O	O (5)	L	I (2)	L	L'	L	L'	L	L'	L	L'	L	L'	L	L'	L	L'	L	L'	L	L'	L	L'

ZIKLOAREN AMAIERA

ZIKLOAREN HASIERA								D1		D2		D3	
1. ASTEA	A	A	a	O	O (5)	L	I (2)	A	L'	P	L'	P	L'
2. ASTEA	A	A	a	O	O (5)	L	I (2)	GO	I	GO	I	P	I
3. ASTEA	A	A	a	O	O (5)	L	I (2)	L	L'	L	L'	L	L'

ZIKLOAREN AMAIERA

TXANDEN ORDUTEGI-ARAUBIDEA

SARRERAKO ORDUTEGIAK

GO	06:00 edo 07:00
AR	14:00 edo 15:00
G	22:00 edo 23:00
I	06:00 edo 07:00
G	18.00etatik 19:00etara

III. ERANSKINA

BRIGADA MUGIKORRAREN ORDUTEGI-ARAUBIDEA

LAN-ZIKLOEN EGITURA

1. Astea	ER	ER	ER	ER	LI	LI	LI
2. Astea	LI	LI	LI	LI	LI	LI	LI
3. Astea	LE	LE	LE	LE	LE	ER	ER
4. Astea	LI	LI	LI	LI	LI	LI	LI
5. Astea	ER	ER	ER	ER	LE	LE	LE
6. Astea	LI	LI	LI	LI	LI	LI	LI
7. Astea	LI	LI	LI	LE	ER	ER	ER
8. Astea	LI	LI	LI	LI	LI	LI	LI
9. Astea	ER	ER	ER	ER	LE	LE	LE
10. Astea	LI	LI	LI	LI	LI	LI	LI
11. Astea	LE	LE	LE	LE	ER	ER	ER
12. Astea	LI	LI	LI	LI	LI	LI	LI
13. Astea	ER	ER	ER	ER	LE	LE	LE
14. Astea	LI	LI	LI	LI	LI	LI	LI
15. Astea	LI	LI	LI	TE	ER	ER	ER
16. Astea	LI	LI	LI	LI	LI	LI	LI

VESTUARIO BÁSICO DE ERTZAINITZA

CONCEPTO	CANTIDAD
Anorak Rojo, Goretex, H. y M.	1 Und.
Bandolera P/ Pistola, H. y M.	1 "
Boina roja C/Escudo, Hombre	2 "
Boina roja C/Escudo, Mujer	2 "
Bota media caña, Seg. Ciud.	1 Par
Botas katiuskas	1 Par
Buzo ignífugo	2 Und.
Calcetín negro	3 Pares
Calzoncillo ignífugo H. Y M.	1 Und.
Camisa azul M/C, H. y M.	3 Und.
Camisa azul M/L, H. y M.	3 Und.
Camiseta ignífuga H. y M. S.C.	1 "
Casco antidisturbios	1 "
Bolsa lona P/Casco	1 "
Chaqueta roja agua, H. y M.	1 "
Chaqueta roja gala, H. y M.	1 "
Cinturón cuero blanco	1 "
Cinturón negro	1 "
Cinturón ignífugo negro	1 "
Conjunto alta visibilidad	1 "
Bolsa P/equipo alta visibilidad	1 "
Correa cuero defensa, H. y M.	2 "
Defensa blanca	1 "
Defensa negra	1 "
Escudo textil M/paño, H. y M.	2 "
Escudo textil sencillo, H. y M.	3 "
Falda pantalón, mujer (Invierno)	1 "
Falda pantalón, mujer (Verano)	1 "
Funda P/ aerosol, C/blanco, H. y M.	1 "
Funda P/ aerosol, C/negro, H. y M.	1 "
Funda P/ cargador, C/blanco, H. y M.	1 "
Funda P/ cargador, C/negro, H. y M.	1 "
Funda P/ grilletes, C/blanco, H. y M.	1 "
Funda P/ grilletes, C/negro, H. y M.	1 "
Funda P/ pistola, C/blanco, H. y M.	1 "
Funda P/ pistola, C/negro, H. y M.	1 "
Goma sujeta pistola	1 "
Grilletes	1 "
Llaves grilletes	2 "
Guantes antidisturbios	1 Par
Guantes cuero negro, Hombre y Mujer	1 "
Hebilla C/ pasador.	1 Und.
Hombreira alma plástico, H. y M.	2 Juegos
Hombreira plastificada, H. y M.	1 "
Jersey rojo, H. y M. (Invierno)	1 Und.
Jersey rojo, H. y M. (Verano)	1 "
Pantalón azul agua, H. y M. (Invierno)	1 "
Pantalón azul agua, H. y M. (Verano)	1 "
Pantalón azul, H. y M. (Invierno)	1 "
Pantalón azul, H. y M. (Verano)	1 "
Pantys	3 Pares
Placa pecho	1 Und.
Silbato	1 "
Tabali P/ defensa, C/blanco	1 "
Tabali P/ defensa negro	1 "
Tornillos P/cinturón, H. y M.	6 "

CONCEPTO	CANTIDAD
<i>Verdugullo negro ignífugo</i>	1 "
<i>Zapato suela cuero</i>	1 Par
<i>Zapato suela goma</i>	1 Par

VESTUARIO MOTORISTA CARRETERA

CONCEPTO	CANTIDAD
<i>Bolsa depósito</i>	
1 Und	
<i>Botas altas carretera</i>	1 Par
<i>Buzo impermeable</i>	1 Und.
<i>Camiseta interior termoaislante</i>	1 "
<i>Casco</i>	1 "
<i>Chaqueta cuero</i>	1 "
<i>Conjunto alta visibilidad</i>	1 "
<i>Bolsa P/equipo alta visibilidad</i>	1 "
<i>Cubre – botas</i>	1 Par
<i>Faja motorista</i>	1 Und.
<i>Guantes invierno</i>	1 Par
<i>Guantes verano</i>	1 "
<i>Jersey rojo cuello perkins</i>	1 Und.
<i>Pantalón cuero</i>	1 "
<i>Ropa interior termoaislante</i>	1 Juego
<i>Verdugullo negro</i>	1 Und.

VESTUARIO ERTZAINA EMBARAZADA

CONCEPTO	CANTIDAD
<i>Vestido premamá</i>	1 Und.
<i>Camisa premamá</i>	2 "
<i>Jersey / Chaqueta punto</i>	1 "

VESTUARIO PATRULLA RURAL MOTORIZADA

CONCEPTO	CANTIDAD
<i>Botas motocross</i>	1 Par
<i>Casco</i>	1 Und.
<i>Chaqueta roja</i>	1 "
<i>Pantalón azul</i>	1 "
<i>Faja motocross</i>	1 "
<i>Gafas</i>	1 "
<i>Guantes</i>	1 Par
<i>Pantalón faena</i>	1 Und.
<i>Mochila</i>	1 "
<i>Bolsa cubre deposito</i>	1 "

ANEXO II AL ACUERDO DE REGULACIÓN DE LAS CONDICIONES DE TRABAJO DEL PERSONAL DE LA POLICÍA
DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI PARA LOS AÑOS 2005, 2006 Y 2007

RÉGIMEN HORARIO DE TURNOS (ARTÍCULO 20)

CUADRO DE ESTRUCTURAS DE CICLO

L: Día de descanso.

X: Día de prestación de jornada.

I.- CICLOS DE CINCO SEMANAS.

ESTRUCTURA								NORMAL						ESPECIAL									
INICIO CICLO								L	M	m	J	V		S	D	L	M	m	J	V		S	D
SEMANA 1	L	M	m	J	V (5)	S	D (2)	x	X	x	x	x		L	L	X	x	x	x	x		x	X
SEMANA 2	L	M	m	J	V (5)	S	D (2)	x	X	x	x	x		x	x	L	L	L	L	L		x	X
SEMANA 3	L	M	m	J	V (5)	S	D (2)	L	L	L	L	L		L	L	L	L	L	L	L		L	L
SEMANA 4	L	M	m	J	V (5)	S	D (2)	x	X	x	x	x		x	x	X	x	x	x	x		x	X
SEMANA 5	L	M	m	J	V (5)	S	D (2)	L	L	L	L	L		L	L	L	L	L	L	L		L	L

FIN CICLO

I.- CICLOS DE TRES SEMANAS.

INICIO CICLO								L	M	m	J	V		S	D
SEMANA 1	L	M	m	J	V (5)	S	D (2)	x	X	x	x	x		L	L
SEMANA 2	L	M	m	J	V (5)	S	D (2)	x	X	x	x	x		x	X
SEMANA 3	L	M	m	J	V (5)	S	D (2)	L	L	L	L	L		L	L

FIN CICLO

RÉGIMEN HORARIO DE TURNOS (SEGURIDAD CIUDADANA)

CUADRO DE CADENCIAS

INICIO CICLO								B1		B2		B3		B4		B5		B6		B7		BM1		BM2		BM3	
SEMANA 1	L	M	m	J	V (5)	S	D (2)	N	L'	M	L'	T	L'	M	L'	T	L'	M	L'	T	L'	M*	D*	T*	N'	T*	D*
SEMANA 2	L	M	m	J	V (5)	S	D (2)	T	N'	T	N'	T	N'	T	D*	T	D*	M	D	N	N'	L	D*	L	D*	L	D*
SEMANA 3	L	M	m	J	V (5)	S	D (2)	L	L'	L	L'	L	L'	L	L'	L	L'	L	L'	L	L'	L	L	L	L'	L	L
SEMANA 4	L	M	m	J	V (5)	S	D (2)	M	D	M	D	M	D	M	D	M	D	M	D	M	D	M*	D*	M*	D*	M*	D*
SEMANA 5	L	M	m	J	V (5)	S	D (2)	L	L'	L	L'	L	L'	L	L'	L	L'	L	L'	L	L'	L	L'	L	L'	L	L'

FIN CICLO

INICIO CICLO								D1		D2		D3	
SEMANA 1	L	M	m	J	V (5)	S	D (2)	T	L'	P	L'	P	L'
SEMANA 2	L	M	m	J	V (5)	S	D (2)	M	D	M	D	P	D
SEMANA 3	L	M	m	J	V (5)	S	D (2)	L	L'	L	L'	L	L'

FIN CICLO

